

ODOLAREN DEIA (2014), IÑAKI IRASIZABAL

Iñaki Irasizabal Izagirre (Durango, Bizkaia, 1969) euskal idazlea da. Nobelen egiturak thrillerena jarraitzen du, baina benetan krimena eta misterioa, Teresa Larrearen esanetan, amua besterik ez da; egilearen benetako asmoa gizartearen erretratua egitea baita.

LANAK:

Narrazioak

- *Ezin joan* (2003, *Hiria*)

Nobelak

- *Borrokaren baitan* (2002, *Hiria*)
- *Berebereen alfonbra* (2003, *Hiria*)
- *Burua txoriz beterik* (2004, *Elkar*) Augustin Zubikarai Sariaren irabazlea
- *Mendaroko txokolatea* (2005, *Elkar*)
- *Gu bezalako heroiak* (2009, *Elkar*)
- *Igelak benetan hiltzen dira* (2011, *Elkar*)
- *Orbe auziaren ingurukoak* (2012, *Elkar*)
- *Bizkartzainaren lehentasunak* (2013, *Elkar*)
- *Odolaren deia* (2014, *Elkar*)
- *Aita gurea (eleberria)* (2012, *Elkar*)

ODOLAREN DEIA:

Aitaren heriotza dela medio, Gorkak aspaldi ikusi gabeko anaiaren deia jaso du. Gertaerak bere familiarekin eta etxearekin harremanetan jarriko du, eta uxatu nahi zituen sentipenak berrituko dizkio. Anaiak laguntza eskatuko dio, ordea, eta ezin izango dio ukatu, bere burua arriskuan jarri eta bizitza korapilatuko diola jakinda ere. Istorioaren katramilak jakin-mina piztuko dio irakurleari eta aurrera jarraitzeko gogo bizia emango dio, baina amaiera ez da sortutako itxaropen-mailaren parekoa izango.

AURKEZPENAK:

<https://www.youtube.com/watch?v=juRLSy>

<http://www.arrosasarea.eus/tag/inaki-irasizabal/>

KRITIKAK:

Odolaren deia / **Iñaki Irasizabal** / Elkar, 2014

Odolaren indarra Javier Rojo / *El Correo*, 2014-03-29

Ia oharkabeen Iñaki Irasizabal bere ibilbidea urratzen ari da euskal literaturaren barruan. Narratibaren alorrean egiten dituen lanak literatura beltzarekin erlazionatu ditzakegu gehienetan eta "Odolaren deia" deitzen den nobela labur honetan ere halaxe gertatzen dela ikus daiteke. Bi anaiaren artean sortzen den harremanaren inguruan biltzen da nobela honen argumentua. Bi anaia hauek aspaldidanik daude elkarrengandik urrun, hamar urte baino gehiago baitira elkarren berri ez dutela. Gauzak honela, egun batean Gorkak, narratzailearen papera ere jokatzen duen pertsonaiak, anaiaren telefono deia jasotzen du aita hil zaiela esateko. Nobelaren lehen partean anaien arteko harremanak kontatzen zaizkigu, aitaren heriotzak berriro ere ekartzen baitizkio gogora Gorkari aspaldiko istorioak eta familiarekin izandako gatazkak. Horrela jakingo dugu bi

anaiak gazte garaian alproja xamarrek baziren ere, bizitzan bakoitzak eraman duen ibilbidea nahiko desberdina izan dela. Irasizabalek idatzitako narrazio hau literatura beltzaren bideetatik abiatzen da. Ikusiko dugu nola garailearen azalaren atzean barru iluna ezkutatzen duen anaia nagusiak. Literatura beltzaren ezaugarrietako bat izan ohi da bertan kontatzen direnak idazlanaren barruko logiko sendo batek gidatu behar dituela, bestela idazleak "deus ex machina" tranpati baten antza hartu dezake-eta, pertsonaiak beraren nahiaren eta asmoen arabera mugiaraziz.

Eta nago familia kontuak oso era interesgarrian eta ondo kontatu ondoren, idazlea gertakarien sarean harrapatuta geratu dela eta ez duela oso argi izan nola askatu pertsonaiak gertakari horietatik. Izan ere, gertakari horien logika dela-eta duda asko sortu zaizkit: adibidez, pertsonaien jokaerak askotan ez datoz bat haiek dituzten baliabideekin; edota ez da kontuan hartzen bideo digitalaren garaian ez dagoela desberdintasun handirik orignalaren eta kopiaren artean...

(SUSA, Kritiken hemeroteca)

Iñaki Irasizabalen beste eleberri beltz labur bat: 'Odolaren deia'

Aita hil berri zaien bi anaia dira protagonista nagusiak, bata enpresaria, bestea ganorabakoa

F. IBARGUTXIDONOSTIA. 2014

Azkenaldian urtero plazaratzen du nobelaren bat Iñaki Irasizabalek (Durango, 1969), eta aste honetan iritsi da dendetara azkena: 'Odolaren deia'. Ohi bezala, genero beltzeko eleberri laburra da.

Oraingoan, ardatza bi anaien arteko harremana da. Gaztetan hartu-eman txarrak izan zituzten eta, urte dezente aldentuta eman eta gero, heriotza batek -aitaren herio-tzak- harremanetan jarriko ditu berriz ere, berrogei bat urteko gizon helduak direlarik. Zehazkiago esanda, anaia zaharrenak gazteenaren laguntza beharko du, eta segituan biak sartuko dira legez kanpoko arazoetan.

Durangoan jaio eta Zornotzan bizi den idazle honek Bizkaian kokatu ohi ditu bere eleberriak, eta orain ere hala egin du. Bilboko Zazpi Kaleak, Sopela eta Mungia aldeko Gamiz-Fika dira kokalekuak.

«Bi anaiok paralelismo handia daukate. Bata txoriburu bat da, bestea eraikuntzaren alorreko enpresaburua, serioagoa. Baina biok dauzkate antzeko akatsak eta an-tzeko alde onak», esan zuen idazleak atzoko aurkezpenean. Idazlea saiatu omen da «nobela labur, beltz eta azkarra» taxutzen. Akzio askokoa da, badaude lapurretak, badaude ekintza bortitzak, dena azkar pasatzen da.

Leialtasuna da gakoa

Leialtasuna omen da kontzeptu giltzarria istorioan. «Leialtasuna norekiko? Odolaren pisua nabaritzen da», jarraitu zuen Irasizabalek. Izenburuan ere odola agertzen zaigu.

Familia-eredu desberdinak ere erakusten ditu eleberri honek. Kontalariak bere neska-lagunarekin eta harekin semearekin osatzen duena, adibidez. «Batetik, nobela batek errealitatearen isla izan behar du eta gaur egun familia ereduak gero eta ugariagoak dira. Modu askotako familiak daude eta denak dira onargarriak. Bestalde, nobela beltza izatean, gizarte kritika dago eta hori errazago egiten da protagonistak ez badu iragarkietan agertzen den familia horietako bat», adierazi zuen Irasizabalek.

Elkar etxeko Xabier Mendiguren Elizegi editoreak, berriz, hauek esan zituen: «Iñakiren nobela guztiek edukitzen dute misterioaren bat barruan, baina idazle honek indar handiena ez du ipintzen misterioaren gako horretan, edota detektibearen lanean, baizik eta beste gauza batzuetan. Azken batean, gure gizartearen erretratatzailerik fina da Iñaki».